

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

1. Komunikazio-kanalak: komunikaziorako erabiltzen ditugun elementu nagusiak *online* dira, gazteen artean oso erabiliak baitira. Adibidez, sare-sozialak erabiltzen ditugu gure zerbitzuaren berri emateko (Instagram kontua esaterako, eta bertan argitaratzen ditugu informazioa eta berriak) eta baita web-orria ere (bertan, arauak, prezioak, zerbitzuari buruzko ezaugarriak...).
2. Banaketa-kanalak: gure banaketa kanala zuzenekoa da, bitartekaririk gabekoa. Hau da, zerbitzua zuzenean eskuratzen da.
3. Salmenta-kanalak: gurea zerbitzu bat denez, salmenta kanala lokal fisikoa da, zerbitzua eskaintzen den lokal berean, hain zuzen ere. Horrez gain, lokalean bertan edaria eta janaria eskaintzen dira, makinaren bidez.